

nortasun handia da, oliba-koloreko azalarekin, aurpegikera gogorrekin eta ezkel antzeko begi-nini zabal ilunekin, horiek guztiek itxura zakar samarra ematen dietela. Emakumeak, ordea, buru eta aurpegi gozoeekin eta arrosa-kolore samurrekin agertzen ditu, Orduñako triptikoan ikusten diren bezalaxe.

Artelan eder honen estilo eta kolore ezaugarriak eta eraginak berrazterturik, badirudi hura 1510-1520 bitartean datatu daitekeela. Valentiner-ek (1945) uste du maisu honen arteak mendeko lehenengo bi hamarkadetan jo zuela gailurra. Hori bat dator triptiko honen kalitate handiarekin, bertan nabarmentzen baitira dekorazio dotorea, oihalak antzeratzeko erabilitako teknika, ileen tratamendua eta paisaiaren egitura.

#### Bibliografía:

W.R. VALENTINER: «*Jan de Vos the Master of Francfort*», The Arte Quaterly, VIII, 1945; P. VANAISE: «*Le Triptyque de la Deploration de L'église de Watervliet*», Bulletin de l'Institut Royale du Patrimoine Artistique, IX, 1966; Max J. FRIEDLÄNDER: «*Early Netherlandisch Painting*», VII, 1971; E. BERMEJO: «*La pintura de los Primitivos Flamencos en España*», Madrid, 1980; Idem: «*Tesoros de las colecciones particulares madrileñas. Tablas españolas y flamencas, 1300-1550*», Cat. Exposiciones, Real Academia de Bellas Artes de San Fernando, 1988, nº 22; «*Las tablas flamencas en la Ruta Jacobea*», 1999ko apirilaren 27tik maiatzaren 27ra, Oviedo. Donostia1999, 246-249.

personajes masculinos, con rostros de coloración cetrina y facciones duras, de amplias y oscuras pupilas con tendencia al bizqueo, lo que contribuye a proporcionarles un aspecto un tanto rudo. En contraposición, representa a las mujeres con cabezas y rostros suaves y delicados tonos rosados, como aparecen en el triptico de Orduña.

Revisadas las calidades de estilo, color e influencias de esta bella obra, parece posible situar su ejecución entre 1510-1520. Valentiner (1945) opina que la cumbre del arte de este maestro se produce durante las dos primeras décadas del siglo, lo cual se corresponde con la alta calidad de este tríptico en el que destaca su elegante decoración, la técnica empleada para realizar las telas, el tratamiento de los cabellos y la estructura del paisaje.

#### Bibliografía:

W.R. VALENTINER: «*Jan de Vos the Master of Francfort*», The Arte Quaterly, VIII, 1945; P. VANAISE: «*Le Triptyque de la Deploration de L'église de Watervliet*», Bulletin de l'Institut Royale du Patrimoine Artistique, IX, 1966; Max J. FRIEDLÄNDER: «*Early Netherlandisch Painting*», VII, 1971; E. BERMEJO: «*La pintura de los Primitivos Flamencos en España*», Madrid, 1980; Idem: «*Tesoros de las colecciones particulares madrileñas. Tablas españolas y flamencas, 1300-1550*», Cat. Exposiciones, Real Academia de Bellas Artes de San Fernando, 1988, nº 22; «*Las tablas flamencas en la Ruta Jacobea*», 27 abril / 27 mayo de 1999, Oviedo. San Sebastián 1999, 246-249.



#### Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa

Cadena y Eleta Apezpikuaren kalea, z/g.  
01008 Gasteiz  
Informazioa: 945 150 631  
museoartescro@euskalnet.net

#### Ordutegia:

Asteartetik ostiralera: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era  
Larunbatetan: 10:00etatik 14:00etara  
Igande eta jaiegunetan: 11:00etatik 14:00etara  
Astelehenetan: Itxita.

#### Museo Diocesano de Arte Sacro

C/ Monseñor Cadena y Eleta, s/n.  
01008 Vitoria  
Información: 945 150 631  
museoartescro@euskalnet.net

#### Horario:

Martes a viernes: de 10:00 a 14:00 y de 16:00 a 18:30  
Sábados: de 10:00 a 14:00  
Domingos y festivos: de 11:00 a 14:00  
Lunes: cerrado.

#### Arabako Foru Aldundia

Euskara, Kultura eta Kirol Saila



#### Diputación Foral de Alava

Departamento de Euskara, Cultura y Deportes

Diócesis de Vitoria



Gasteizko Elizbarrutia

Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa



Museo Diocesano de Arte Sacro

# Ama Birjina eta Haurra paisaia batean. Triptikoa

## Tríptico de la Virgen con el Niño en un paisaje



Estudio y textos: ELISA BERMEJO

## FRANKFURTEKO MAISUA

(Anberesen jarduean  
1490-1520 bitartean)

**Ama Birjina eta Haurra  
paisaia batean. Triptikoa**  
(1510/1520 aldera)

Haritz ohol gaineko olio pintura,  
71,5x48 cm, zabalik.

Ezkerreko atea: Santa Katalina

Eskuineko atea: Santa Barbara

**ORDUÑA (Bizkaia).**

Santa Maria la Antigua santutegia.

## MAESTRO DE FRANCFORT

(activo en Amberes,  
1490-1520)

**Tríptico de la Virgen con el Niño  
en un paisaje**  
(ca. 1510/1520)

Oleo s/tabla de roble,  
71,5x48 cm., abierto.

Puerta izquierda: Santa Catalina

Puerta derecha: Santa Bárbara

**ORDUÑA (Vizcaya).**

Santuario de Santa María la Antigua.



aldera hasi zen eta monumentaltasuneranzko aldaketa bat eta formen ikuspegi plastikoagoa dakartza berekin. Orduñako triptikoaren egileak, funtsean, errepikatu egin du *«Ama Birjina Haurrarekin»* zeruan tronuratua eta beheko aldean San Pedro, San Agustín eta abate emaile bat lagun dituen. Robert Campin-en lan aitortua da, Aix-en-Provenceko Granet Museoa gordetzen dena (300 zk.). Lan honetan Haurra biluzik dago eta Ama Birjinak ez darama lorarik eskuan, beste konposizio ezagun batzuetan ageri den bezala –esaterako, Douai-ko Udal Museokoan eta haren zenbait jarraitzaile lan batzuetan, hala nola Huescako Museoko triptiko ezagunean (kat. 19.a); azken honek ere santa berberak ageri dituetan.

Gure asmoa, oroz gain, Orduñako pinturen estiloa Frankfurteko Maisuaren

ca. 1420 y supone una transformación hacia la monumentalidad y una visión más plástica de las formas. El pintor del tríptico de Orduña repite en lo fundamental a la *«Virgen con el Niño»* entronizada en el cielo y acompañada en la parte inferior por San Pedro, San Agustín y un abad donante, obra reconocida de Robert Campin que se conserva en el Museo Granet de Aix-en-Provence (nº 300). En este ejemplar el Niño va desnudo y la Virgen no lleva la flor en su mano tal y como aparece en otras composiciones conocidas como la del Museo Municipal de Douai y en algunas de ciertos seguidores, como la del conocido tríptico del Museo de Huesca (cat. 19ª), que también exhibe las mismas santas en las puertas.

Nos interesa ante todo relacionar el estilo de las pinturas de Orduña con el

estilo bereizgarriarekin erlazionatzea da eta, horretarako, historialari gehienek Anberesen lan egin zuen pintore honek egindakotzat onartzen dituzten zenbait lanekin haiek konparatzea da hoberena.

Friedländer kritikariak, besteak beste, orain aztertzen ari garen triptikokoe-kin estilo ahaidetasun nabaria duten zenbait taula aipatu eta agertu zituen (1971). Hain zuzen ere, autore honek argitara eman zuen triptiko bat, erdian «Ama Birjina Haurrarekin eta Santa Anarekin» paisaia batean eserita ageri duena (Berlin: Bode-Museum, 575 zk. A eta B; 87x55-25 cm, perfil lobulatua). Ama Birjina eta Haurra antzeko konposizioak dira bi triptikoetan, eta ateetako santen jarrerak eta aurpegiak berdinak dira. Horrez gainera, Franfurteko Maisuaren guztiz tipikoa den ezaugarri bat: horri zabal eta mamitsuko landarez estalitako lurrek teknika eta kalitate berdinak ageri dituzte. Era berean, santa berberak dituzten beste bi ate, bakarka (Innsbruck: Ferdinandeum), Orduñakoen antzeko dekorazio zentzuaz eginak dira.

Gure triptikoaren hondoa osatzen duen paisaiari dagokionez, deigarriak dira lainoen gainetik ageri diren harkaitz tontorrak, ingerada bigun samarrak eta kolore urdin bizia dituztenak, urrutian. Apetazko formak dituzte, 1515az gero Anberesen lan egin zuen Patinir paisaiapintore handia baino lehen gutxitan aurkitzen den fantasiaz. Daitekeena da pintore hau Patinir-engan inspiratu izana, baina badago Frankfurteko Maisua haren aitzindari izan zitekeela uste duenik ere.

Maisu honen tipikoa den beste ezaugarri bat gizonezko pertsonaiengan nabari den

característico del Maestro de Francfort y para ello nada mejor que compararlas con obras aceptadas por la mayoría de los historiadores como realizadas por este pintor que trabajó en Amberes.

El crítico Friedländer, entre otros, cita y reproduce (1971) varias tablas que evidencian el parentesco estilístico con las del tríptico que ahora estudiamos. Precisamente, el citado autor publica un tríptico que tiene como centro a la *«Virgen con el Niño y Santa Ana»* sentados en un paisaje, en cuyas puertas aparecen las mismas santas (Berlín: Bode-Museum, nº 575 A y B; 87x55-25 cm., perfil lobulado). La Virgen y el Niño son composiciones semejantes en ambos trípticos y las Santas de las puertas repiten actitudes y rostros. Además, un rasgo absolutamente típico del Maestro de Francfort: los suelos tapizados de plantas, de hojas amplias y carnosas, aparecen con igual técnica y calidades. Igualmente, otras dos puertas aisladas con las mismas santas (Innsbruck: Ferdinandeum) están realizadas con un sentido decorativo semejante a las de Orduña.

En cuanto al paisaje que sirve de fondo a nuestro tríptico, llaman la atención los picos rocosos que se recortan sobre el celaje con contornos más bien suaves y de un intenso azul en la lejanía. Presentan formas caprichosas con una fantasía poco frecuente antes de Patinir, gran paisajista que trabaja en Amberes desde 1515, en cuyas composiciones es posible que este pintor se inspirase, aunque hay quien califica al Maestro de Francfort como un posible precursor de aquél.

Otro rasgo típico de este Maestro es la fuerte personalidad que acusa en los

Pintore honen izena, bi triptiko garrantzitsuren kokalekuari zor zaio: Stäldesches Kunstinstitut-eko *«Gurutziltzaketa emaileekin»* eta Historisches Museum-eko *«Santa Anaren familia»*, biak Alemaniako Frankfurt hirian baitaude. Identifikazio bezala, iritzirik onargarriena P. Vanaise-rena da (1966). Honek pintoreari izena eman dioten bi triptiko horiekin estilo aldetik loturik dagoen lan multzo bat bildu zuen, eta beste triptiko bat, beste egile batena dirudiena; azken hau Watervliet-eko Maisua izendatu zuen behin-behinekoan. Juan de Vos eta Heyndrik van Wuelewe izenak ere proposatu dira baina, haietaz, bizitzari buruzko datu dokumentalak bakarrik heldu zaizkigu, ez baita ezagutzen erreferentzia estilistiko bezala erabil daitekeen lanik.

Orduñako triptikoa egiteko, Robert Campin edo Flemalleko Maisuaren (Tournai 1375-1444) bigarren urrats estilistikotik datorren konposizioan inspiratu zen –bigarren urrats hori 1420

Este pintor toma su nombre a causa de la localización de dos importantes trípticos: la *«Crucifixión con donantes»* del Stäldesches Kunstinstitut, y *«La Familia de Santa Ana»* del Historisches Museum, ambos en la ciudad alemana de Francfort. Como identificación, la opinión más aceptable es la de P. Vanaise (1966), el cual reúne un grupo de obras en relación estilística con los dos trípticos citados que prestan su nombre al pintor, y otro tríptico, que aparece de distinta mano y al que provisionalmente denomina Maestro de Watervliet. Se han propuesto también los nombres de Juan de Vos y de Heyndrik van Wuelewe, aunque de ellos sólo nos han llegado datos documentales sobre su existencia pero no se conoce obra suya ninguna que pueda servir como referencia estilística.

Para realizar el tríptico de Orduña se inspira en composición que procede de Robert Campin, alias Maestro de Flemalle (Tournai 1375-1444), en su segunda etapa estilística que se inicia